

ARABAKO ETEEN NAZIOARTEKOTZEA SUSTATZEKO LAGUNTZAK
ARABA-INTERKOOP 2026

Eskaerak aurkezteko epea (9.art)	Proiektuak gauzatzeko epea (6.2 art.)		
Eskaerak aurkezteko epea 2026ko maiatzaren 23an hasiko da eta 2026ko ekainaren 26an bukatuko da.	Diruz lagundu ahal izango dira 2026ko urtarrilaren 1etik 2027ko uztailaren 31ra bitartean (egun hori barne) gauzatzen diren proiektuak eta/edo gastuak.		
Xedea (1.art)	Arabako ETEak nazioartekotzen laguntzea, banakako proiektuen bidez, bai eta Arabako enpresen arteko lankidetzaproiektuen bidez ere, elkarrekin kanpora atera daitezzen.		
Onuradunak (3.art)	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Sozietate egoitza eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten enpresa txiki eta ertainak (ETE), beren osaera juridikoa edozein dela ere, ekoizpen edo zerbitzu zentzoren bat Arabako Lurralde Historikoaren barruan daukatenak eta eratu zirenetik eskaera aurkeztzen duten egunera arte gutxienez urtebeteko antzinatasuna dutenak. ➤ Trakzio erakundeak, Arabako ETEei nazioartekotze prozesuan laguntzeko proiektuen buru direnak. Trakzio erakundeek ere Araban izan behar dituzte sozietatearen egoitza eta zerga egoitza. Hala ere, betebeharrak horretatik kanpo geratuko dira zientzia, teknologia eta berrikuntzaren euskal sareko eragileak; horientzat nahikoa izango da ekoizpen edo zerbitzu zentro bat Araban izatea. ➤ Irabazteko xederik gabeko erakundeak, honako baldintza hauek betetzen badituzte: Arabako ekoizpen ehunaren erakusgarri badira; egiaztatze moduko esperientzia badute enpresen nazioarteko sustapenean; alor horretan gutxienez hiru urteko ibilbidea badute; sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Araban badituzte; eta aurreko puntuan aipatutako onuradunak ez badira. 		
Diruz lagundu daitezkeen jarduerak (art.4)	Diruz lagundu ahalko dira ETEak nazioartekotzeko banakako proiektuak abian jartzeko jarduerak, bai eta nazioartekotzeko enpresa-lankidetzarako proiektuak ere, hala nola, lankidetzaren teknika, komertziala, finantzarioa edo beste mota batekoa beste herrialde batzuetako enprekin, bai eta Arabako enpresen arteko lankidetzaren ere, kanpora batera irteteko xedez egingo dena.		
Diruz lagundu daitezkeen gastuak (art.5)	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Kanpoko profesionalekin edo nazioartekotzean espezializatutako zerbitzu profesionalak eskaintzen dituzten erakunde edo enprekin kontratatutako lanak, bai eta proiektua garatzeak dakartzan beste gastu batzuk ere. Gehienez ere 20.000 euro proiektu bakoitzeko. ➤ Bidaia eta ostatu gastuak. ➤ Nazioarteko azoketara joatea eta produktuen erakustaldiak edo sustapenak. Gehienez 20.000 euro proiektuko. ➤ Komunikazio gastuak gehienez ere 20.000 euro enpresa bakoitzeko eta 30.000 euro proiektu bakoitzeko: Webguneak egokitzea, publizitatea sortu eta txertatzea atzerriko komunikabideetan eta Interneten, promoziorako materialaren diseinua, itzulpen zerbitzua. ➤ Ibilgailuak eta taxiak alokatzeko gastuak. ➤ Inbertsio gastuak gehienez ere 40.000 euro proiektu bakoitzeko: Prototipoak garatzea, aldaketak egitea edo produktuak egokitzea nazioarteko merkatu berrietara zabaltzeko, produktuaren erregistroa xedezko merkatuan: homologazioak, egiaztapenak eta nazioarteko marka, proiekturako behar diren software erosketak edo plataforma teknologikoen garapenak. ➤ Barneko gastuak: proiektuan parte hartzen duten langileen soldatak, Gizarte Segurantzari egin beharreko enpresa kotizazioak barne, bidaiak direla eta kanpoan dauden egunei dagozkienak. 		
Dirulaguntzaren zenbatekoa (art.7.2)		Dirulaguntzaren gehienezko %	Muga
	Trakzio erakundea buru duten lankidetzaren proiektuetarako.	80%	120.000,00 € proiektu bakoitzeko (*)
	ETEen nazioartekotzean lankidetzaren proiektuetarako (gutxienez arabako bi enpresek parte hartu beharko dute) edo (*)trakzio erakunde batek zuzendutako proiektu batean daudenak.	60%	60.000,00 € proiektu bakoitzeko
	Enpresen nazioarteko sustapenean egiaztatze moduko esperientzia duten irabazteko xederik gabeko erakundeen proiektuetarako.		
	Nazioarteko lehiaketa edo lizitazio proiektuetarako.	60%	10.000,00 € proiektu bakoitzeko
	Banakako internazionalizazio proiektuko ETEak.	40%	40.000,00 € proiektu bakoitzeko
Dirulaguntza ordaintzea (13. art.)	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Dirulaguntzaren lehenengo zatia, hau da, onartutako dirulaguntzaren ehuneko 50, 13.2 artikulua azaltzen duena egitean ordainduko da. ➤ Dirulaguntzaren gainerako ehuneko 50a ordaintzeko, 2027ko urriaren 29ra arteko epean (egun hori barne), dirulaguntza guztiaren frogagiriak aurkeztu beharko ditu. 		
Arautegia eta emakida erregimena	Foru Gobernu Kontseiluaren 295/2026 Erabakia, maiatzaren 19koa. ALHAO 2026ko maiatzaren 22a, ostirala • 58 zk. Lehiaketa (1.art).		